



Turismo-azturak eta turismo hartzaileari buruzko pertzepzioa, 2024 FITXA TEKNIKOA

1.2. Fitxa teknikoa

➤ Publiko xedea



Turismo-azturak eta turismo hartzaileari buruzko pertzepzioa Eragiketa estatistikoaren publiko xedea Euskal Autonomia Erkidegoko eta bertako lurralde historikoetako familia-etxebizitzetan bizi den 18 urte edo gehiagoko biztanleria da.

➤ Lagin-oinarriaren esparrua eta diseinua



Eragiketa estatistiko ofizialaren esparrua Eustat erakundeak eratua da. Landa-lana egiteko oinarritzat hartutako lagin-oinarria ateratzeko prozesuan etapa bakar batean estratifikatutako laginketa bati jarraitu zaio, eta “jomuga turistiko”, “adina” eta “sexua” erkatze-aldagaiak zein familiaren tamainaren aldagaiak (3 kategoria; pertsona 1, 2 pertsona eta 3 pertsona edo gehiago etxebizitzan) orekatuta.

Eustat erakundeak CUBE metodoari jarraitu dio oinarri hori ateratzeko, aldagaien araberako oreka bat burutu eta populazioa irudikatzen pertsona kopuruaren banaketa jakin bat ziurtatzen duena.

Oinarri bat izateko premia zenbatetsi da, horren gainean 6.000 erregistroko zundaketa bat eginez, azken lagin egokia erdieste aldera. Eustat erakundeak hasiera batean ateratako 6.000 erregistroetatik, eta datuak biztanleriaren erroldarekin erkatu ondoren, guztira 5.658 kasuz osatutako behin betiko lagin-oinarri bat eskuratu da.

Aztergai den unibertsoa

| | | BIZILEKU-JOMUGA TURISTIKOA | | | | | | | | | | | | GUZTIRA |
|----------------|----------------------|----------------------------|----------------|----------------|----------------|---------------|---------------|------------------|----------------|----------------|----------------|----------------|--------------|------------------|
| | | Gasteiz | | Bilbo | | Donostia | | Euskal kostaldea | | Barnealdea | | Arabar Errioxa | | |
| | | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | |
| ADINA | 18-24 urte bitartean | 8.850 | 8.356 | 11.961 | 10.966 | 6.610 | 6.405 | 15.273 | 14.577 | 36.195 | 33.787 | 402 | 392 | 153.774 |
| | 25-29 urte bitartean | 6.144 | 5.969 | 9.209 | 9.288 | 5.123 | 5.051 | 10.159 | 9.649 | 23.159 | 21.939 | 268 | 260 | 106.218 |
| | 30-39 urte bitartean | 13.983 | 14.096 | 19.712 | 19.579 | 9.748 | 10.329 | 21.337 | 21.102 | 50.305 | 49.461 | 610 | 537 | 230.799 |
| | 40-49 urte bitartean | 20.357 | 20.250 | 24.128 | 24.442 | 12.328 | 13.076 | 31.305 | 31.250 | 78.474 | 76.423 | 877 | 767 | 333.677 |
| | 50-54 urte bitartean | 10.153 | 10.234 | 12.791 | 13.596 | 6.899 | 7.250 | 17.292 | 17.172 | 41.880 | 40.121 | 503 | 423 | 178.314 |
| | 55-59 urte bitartean | 9.185 | 9.573 | 12.908 | 14.010 | 6.650 | 7.482 | 16.076 | 16.520 | 38.993 | 38.347 | 468 | 446 | 170.658 |
| | 60-64 urte bitartean | 7.949 | 9.040 | 12.409 | 14.148 | 6.467 | 7.469 | 15.024 | 16.285 | 34.974 | 36.063 | 489 | 429 | 160.746 |
| | 65-74 urte bitartean | 1.2921 | 15.460 | 18.502 | 22.654 | 10.834 | 13.094 | 24.541 | 27.799 | 55.065 | 59.610 | 626 | 619 | 261.725 |
| | 75 urte eta gehiago | 12.304 | 17.031 | 16.988 | 29.528 | 9.420 | 15.327 | 21.487 | 32.264 | 47.976 | 69.353 | 563 | 673 | 272.914 |
| GUZTIRA | | 101.846 | 110.009 | 138.608 | 158.211 | 74.079 | 85.483 | 172.494 | 186.618 | 407.021 | 42.5104 | 4.806 | 4.546 | 1.868.825 |

➤ Landa-lanaren, laginaren eta estatistika-errorearen diseinua



Behin Eustat erakundeak ateratako lagin-oinarria lortuta, hautatutako pertsoneri gutun bat bidali zitzaien, eragiketa estatistikoaren berri emanez. Landa-lana burutzeko laginketa-metodoan CAWI (*Computer Aided Web Interview*) eta CATI (*Computer Aided Telephone Interview*) metodologiak uztartu dira, eta Lanalden S.A. Enpresak egin du.

Azkenik, 18 urtetik gorako Euskadiko herritarrei egindako 1.593 elkarrizketako lagin bat lortu da. Horrek $e = \% \pm 2,5$ eko errore-marjina suposatzen du ($\% 95,5$ eko konfiantza-maila baterako, $2 s \mu$ -rekiko, izanik $p=q=0,5$).

➔ Egindako laginaren egitura eta orekatzea

Jarraian, laginketaren emaitzak, estratifikazio-aldagaien eta behin aztergai den unibertsoaren egiazko proportzionaltasunera haztatu edo orekatu ondorengo azken laginketaren arabera, azaldu dira.

Aurrera begira, emaitzen txostenean, galdetegiko galdera bakoitzari erantzuteko lagin-oinarriak erakutsiko dira, horrela: $(N = \text{oinarrioinarri haztatua} / \text{haztatu gabeko oinarria})$

Egindako laginaren egitura, haztatu gabe

| | | BIZILEKU-JOMUGA TURISTIKOA | | | | | | | | | | | | GUZTIRA |
|---------|----------------------|----------------------------|----------|--------|----------|----------|----------|------------------|----------|------------|----------|----------------|----------|---------|
| | | Gasteiz | | Bilbo | | Donostia | | Euskal kostaldea | | Barnealdea | | Arabar Errioxa | | |
| | | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | |
| ADINA | 18-24 urte bitartean | 11 | 9 | 13 | 11 | 9 | 14 | 13 | 14 | 13 | 22 | 5 | 6 | 140 |
| | 25-29 urte bitartean | 4 | 7 | 9 | 10 | 4 | 5 | 6 | 6 | 14 | 9 | 2 | 2 | 78 |
| | 30-39 urte bitartean | 13 | 17 | 18 | 20 | 16 | 16 | 18 | 18 | 19 | 30 | 2 | 7 | 194 |
| | 40-49 urte bitartean | 24 | 28 | 22 | 27 | 19 | 22 | 26 | 30 | 35 | 33 | 10 | 6 | 282 |
| | 50-54 urte bitartean | 13 | 12 | 12 | 15 | 7 | 12 | 12 | 14 | 25 | 23 | 7 | 6 | 158 |
| | 55-59 urte bitartean | 10 | 13 | 12 | 18 | 10 | 15 | 12 | 15 | 20 | 17 | 6 | 5 | 153 |
| | 60-64 urte bitartean | 8 | 12 | 14 | 14 | 10 | 9 | 16 | 14 | 18 | 17 | 4 | 5 | 141 |
| | 65-74 urte bitartean | 15 | 20 | 18 | 17 | 15 | 20 | 20 | 22 | 28 | 30 | 7 | 6 | 218 |
| | 75 urte eta gehiago | 17 | 23 | 15 | 25 | 15 | 22 | 20 | 28 | 23 | 31 | 5 | 5 | 229 |
| GUZTIRA | | 115 | 141 | 133 | 157 | 105 | 135 | 143 | 161 | 195 | 212 | 48 | 48 | 1.593 |

Laginaren egitura haztatu ondoren (esleitutako biztanleria-garrantziak)

| | | BIZILEKU-JOMUGA TURISTIKOA | | | | | | | | | | | GUZTIRA | |
|---------|----------------------|----------------------------|----------|--------|----------|----------|----------|------------------|----------|------------|----------|----------------|---------|----------|
| | | Gasteiz | | Bilbo | | Donostia | | Euskal kostaldea | | Barnealdea | | Arabar Errioxa | | |
| | | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | | Emakumea |
| ADINA | 18-24 urte bitartean | 8 | 7 | 10 | 9 | 6 | 5 | 13 | 12 | 31 | 29 | 0 | 0 | 131 |
| | 25-29 urte bitartean | 5 | 5 | 8 | 8 | 4 | 4 | 9 | 8 | 20 | 19 | 0 | 0 | 91 |
| | 30-39 urte bitartean | 12 | 12 | 17 | 17 | 8 | 9 | 18 | 18 | 43 | 42 | 1 | 0 | 197 |
| | 40-49 urte bitartean | 17 | 17 | 21 | 21 | 11 | 11 | 27 | 27 | 67 | 65 | 1 | 1 | 284 |
| | 50-54 urte bitartean | 9 | 9 | 11 | 12 | 6 | 6 | 15 | 15 | 36 | 34 | 0 | 0 | 152 |
| | 55-59 urte bitartean | 8 | 8 | 11 | 12 | 6 | 6 | 14 | 14 | 33 | 33 | 0 | 0 | 145 |
| | 60-64 urte bitartean | 7 | 8 | 11 | 12 | 6 | 6 | 13 | 14 | 30 | 31 | 0 | 0 | 137 |
| | 65-74 urte bitartean | 11 | 13 | 16 | 19 | 9 | 11 | 21 | 24 | 47 | 51 | 1 | 1 | 223 |
| | 75 urte eta gehiago | 10 | 15 | 14 | 25 | 8 | 13 | 18 | 28 | 41 | 59 | 0 | 1 | 233 |
| GUZTIRA | | 87 | 94 | 118 | 135 | 63 | 73 | 147 | 159 | 347 | 362 | 4 | 4 | 1.593 |

➡ Noiz egin den



Turismo-azturak eta turismo hartzaileari buruzko pertzepzioa eragiketa estatistikoaren landa-lana 2024ko ekainak 12 eta uztailak 17 bitartean egin zen.

Informazio-oharra: aldaketa metodologikoa

“Turismo-azturak eta turismo hartzaileari buruzko pertzepzioaren inkesta” izeneko eragiketa estatistiko ofizialaren edizio honetan aurreko urteetan ez bezalako planteamendu metodologikoa jarraitu da. Hori kontuan izan behar da emaitzak datuen historikoarekin alderatzean.

Planteamendu metodologikoan dauden ezberdintasun nagusiek puntu hauekin dute zerikusia:

- Zundaketa egiteko Eustat erakundeak ateratako lagin-oinarria Euskadiko populazioaren errealitatearekiko proportzionala da.
- Turismoaren sektorearen interesekin bat datozen azterketa-aldagaiak erabili dira. Horietako bat da publiko xedea Euskadiko sei jomuga turistikoen arabera multzokatzea segmentazio geografikoko aldagai gisa.
- Halaber, erabilitako adin-multzoen banakapena bat dator Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak beste eragiketa estatistiko ofizial batzuetan erabilitakoarekin, beharrezkoak diren alderaketak egite aldera. Halaber, aztergai den unibertso xedean, laginketak aurrekoetan baino populazio-talde gehiago hartzen ditu adinari dagokionez, Euskadiko herritarren osaera osoarekiko leialagoa izanik.
- Azkenik, aurreko urteetan inkesta telefono bidezko laginketa bidez egin zen. Aurten, ordea, web bidez erantzuteko aukera gaineratu da, CAWI eta CATI metodologiak uztartuz.

We Are Testers plataformak egindako inkesta, Turismoaren Euskal Agentziak (Basquetour) eskatuta